SARRERA ZBK. - REGISTRO N.º
2016 / 342

**DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEEK ANTOLATUTAKO JAIALDIAK, IKUSKIZUNAK, KULTURA EKITALDIAK, KIROL EKITALDIAK ETA ABAR EGITEKO AGERTOKI, HESI, MAHAI, AULKI, HARMAILA ETA BESTE HAINBAT MATERIALEN HORNIDURA, ALOKAIRU ERREGIMENEAN, ETA HORIEK EZARTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUKO 3. LOTEA ESLEITZEN DUEN DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO KONTRATAZIO ORGANOAREN EBAZPENA.**

Espedientea: **2015/14**

2015eko ekainaren 5ean onartu ziren honako lizitazio hau arautzen duten Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orria eta Baldintza Teknikoen Orria. EBAOn argitaratutako iragarki bidez egin zen lizitazioaren publizitatea, eta kontratatzailearen profilean, EAOn eta GAOn argitaratu zen. 2015eko abuztuaren 6an amaitu zen lizitazioan parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea.

Lizitazio-iragarkian eskaintzak aurkezteko eta ezarritako epearen barruan, 3. loterako jarraian adieraziko diren enpresen eskaintzak jaso ziren:

- 3. LOTEA:
  1. *EVENTOS ZUNZARREN, S.L. (aurrerantzean ZUNZARREN)*
  2. *IMPORCARAVAN, S.L. (aurrerantzean IMPORCARAVAN)*
  3. *LOYOLA SIGLO XXI, S.L. (aurrerantzean LOYOLA S.XXI)*

Ebaluazio Batzordea 2015eko abuztuaren 10ean bildu zen eta A gutun-azalari zegokion dokumentazioa zabaldu zuen, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuaren eta kasurako Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orrian aurreikusitakoaren arabera, lizitatzaile guztiek gaitasun- eta kaudimen-baldintzei buruzko betebeharrak betetzen zituztela

**RESOLUCIÓN DEL ÓRGANO DE CONTRATACIÓN DE LA ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL DONOSTIA KULTURA POR LA QUE SE ADJUDICA EL LOTE 3 DEL CONTRATO DEL SUMINISTRO, EN RÉGIMEN DE ALQUILER, ASÍ COMO DEL SERVICIO DE COLOCACIÓN, MONTAJE Y DESMONTAJE DE ESCENARIOS, VALLAS, MESAS, SILLAS, GRADERÍOS Y MATERIAL DIVERSO, PARA LA CELEBRACIÓN DE FESTEJOS, ESPECTÁCULOS, ACTOS CULTURALES, DEPORTIVOS, ETC. ORGANIZADOS POR LA ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL DONOSTIA KULTURA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. Y SAN TELMO MUSEOA, S.A.**

Expediente: **2015/14**

Con fecha 5 de junio de 2015, se aprobaron los Pliegos de Cláusulas Económico-Administrativas y de Prescripciones Técnicas que rigen la presente licitación, se dio publicidad mediante anuncio publicado en el perfil de contratante , así como en el BOE, DOUE y en el BOG, finalizando el plazo de presentación de proposiciones para tomar parte en la misma el día 6 de agosto de 2015.

Dentro del plazo establecido en el anuncio de licitación para la presentación de ofertas se recibieron ofertas, para el lote 3, de las empresas que se relacionan a continuación:

- LOTE 3:
  1. *EVENTOS ZUNZARREN, S.L. (en adelante ZUNZARREN)*
  2. *IMPORCARAVAN, S.L. (en adelante, IMPORCARAVAN)*
  3. *LOYOLA SIGLO XXI, S.L. (en adelante LOYOLA S.XXI)*

El día 10 de agosto de 2015 el Comité de Evaluación se reunió y abrió la documentación correspondiente al Sobre A, entendiendo que todos los licitadores cumplían los requisitos relativos a las condiciones de aptitud y solvencia, con arreglo al Real Decreto 3/2011, de 14 de noviembre, que aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante, TRLCSP) y según lo previsto al efecto en el Pliego de Cláusulas Económico-

6634n VI 2009-11

ulertuz; salbuetsita IMPORCARAVANek aurkeztutako dokumentazioan zeuden akats edo omisio zuzengarri jakin batzuk.

Administrativas, con excepción de determinados defectos y omisiones subsanables en la documentación presentada por IMPORCARAVAN.

Lizitatzaile horri exijitutako bidezko dokumentazioa eskatu zitzaion, aipatutako akats edo omisio zuzengarri horiek zuzentzeko. Lizitzaileak adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Ebaluazio Batzordeak berori berriz ere aztertu zuen.

Se requirió y presentó la correspondiente documentación exigida a dicho licitador para proceder a la subsanación de los referidos defectos u omisiones subsanables, siendo ésta nuevamente analizada por el Comité de Evaluación.

Akats eta omisio guztiak epearen barruan zuzendu ziren, eta ez zen enpresa bat ere baztertu.

Todos los defectos y omisiones fueron subsanados en plazo, no habiéndose excluido a ninguna empresa

Ebaluazio Batzordea 2015eko abenduaren 10ean bildu zen eta B gutun-azalari zegokion dokumentazioa zabaldu zuen, eta lizitatzaileek aurkeztutako proposamen teknikoak aztertu eta baloratu zituen, Baldintza Ekonomiko eta Administratiboen Orriko 14. Klausulan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuz. Honako puntuazio hauek lortu zituzten:

El día 15 de diciembre de 2015 el Comité de Evaluación se reunió y abrió la documentación correspondiente al Sobre B, siendo las propuestas técnicas presentadas por los licitadores estudiadas y valoradas por dicho Comité de conformidad con los criterios de valoración establecidos en la Cláusula 14 del Pliego de Condiciones Económico-Administrativas, obteniéndose las siguientes puntuaciones:

IFK-CIF Q2000541I
6634n VI 2009-11

**3. LOTEA/LOTE 3**

| **Lizitatzailea** / Licitador | **Proposamen teknikoaren puntuazioa** / Puntuación propuesta técnica |
|---|---|
| ZUNZARREN | 15,98 |
| IMPORCARAVAN | 17,85 |
| LOYOLA S.XXI | 16,93 |

Ebaluazio Batzordea 2015eko abenduaren 17an bildu zen eta ekitaldi publikoan C gutun-azaleko dokumentazioa zabaldu zuen. Batzorde horrek lizitatzaile guztiek aurkeztutako proposamen ekonomikoak aztertu eta baloratu zituen Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orriko 14. Klausulan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuz.

El día 17 de diciembre de 2015 el Comité de Evaluación se reunió y abrió en acto público la documentación correspondiente al Sobre C, siendo las proposiciones económicas presentadas por todos los licitadores estudiadas y valoradas por dicho Comité de conformidad con los criterios de valoración establecidos en la Cláusula 14 del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas.

Lehen analisiaren ondoren, Ebaluazio Batzordearen arabera LOYOLA S.XXI enpresaren proposamenak zuzendu zitezkeen akatsak eta hutsak zituen.

Tras un primer análisis, el Comité de evaluación observó que la propuesta de LOYOLA S.XXI presentaba determinados defectos y omisiones subsanables.

Zuzendu zitezkeen akats edo huts horiek konpontzeko, eskatu zitzaion dokumentazioa lizitatzaileak aurkeztu ondoren, Ebaluazio

Se requirió y presentó la correspondiente documentación exigida a dicho licitador para proceder a la subsanación de los referidos

Batzordeak dokumentazio berria berriro aztertu zuen. Akats eta huts guzti hauek epearen barruan zuzenduta zeuden.

defectos u omisiones subsanables, siendo ésta nuevamente analizada por el Comité de Evaluación. Todos estos defectos y omisiones fueron subsanados en plazo.

Era berean, Batzordeak ikusi zuen Lote honetarako IMPORCARAVAN eta LOYOLA S.XXI enpresek euren proposamenetan eskainitako prezio unitario batzuk anormalak edo neurriz kanpokoak zirela, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orriko 14. Klausulan ezarritakoa kontuan hartuz.

A su vez, el Comité observó también que algunos de los precios unitarios ofertados en su propuesta por IMPORCARAVAN y LOYOLA S.XXI para este Lote podrían ser considerados como anormales o desproporcionados según lo establecido en la Cláusula 14 del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuaren 152.3. artikuluan, eta lizitazio hori arautzen duen Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orrian -anormal edo neurriz kanpokotzat jo zitezkeen eskaintzen identifikazioari loturik- aurreikusitakoa betez, IMPORCARAVAN eta LOYOLA S.XXI enpresei audientzia eman zitzaien.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 152.3 del Real Decreto 3/2011, de 14 de noviembre, que aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y en el Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas que rige la referida licitación, en relación a la identificación de ofertas que pudieran ser consideradas como anormales o desproporcionadas, se procedió a dar audiencia a IMPORCARAVAN y LOYOLA S.XXI.

Audientzia-izapidea amaituta, eta bi lizitatzaileek emandako arrazoiak kontuan hartuta, Kontratazio Organoak IMPORCARAVANek aurkeztutako proposamena ez onartzea erabaki zuen. Hortaz, prozedura honetatik kanpo geratu da.

Finalizado el trámite de audiencia, el Órgano de Contratación, considerando la justificación efectuada por ambos licitadores, acordó inadmitir la proposición presentada por IMPORCARAVAN quedando, por lo tanto, excluida del presente procedimiento.

2016ko otsailaren 12ko datarekin, Organo horrek emandako ebazpenetik honakoa ondorioztatzen da: IMPORCARAVAN enpresari eskaintzaren balorazioa justifikatzea eta eskaintza horren baldintzak zehaztea eskatuta (Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orriaren IV. Eranskinean jasotako lizitazioko prezio unitario maximoak gutxienez % 20 azpitik zituzten bost preziorekin loturik), lizitatzaileak hasieran eskainitako sei prezio unitario aldatuz erantzun zuen. Aldaketa horiek eskaintza asko aldatzen zutela pentsatu zen. Eta hori, araudiaren eta kontratu bidezko errekurtsoen organoen ebazpenen eta jurisprudentziaren arabera, debekatuta dago, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 1. eta 139. artikuluetan jasotako diskriminaziorik ezaren, berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioen aurka doalako.

De la resolución de dicho Órgano, de fecha 12 de febrero de 2016, se desprende que, habiendo sido requerida IMPORCARAVAN para justificar la valoración de la oferta y precisar las condiciones de la misma (en relación con cinco de los precios unitarios ofertados por ser inferiores en un 20% o más a los precios unitarios máximos de licitación contenidos en el Anexo IV del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas), contestó a dicho requerimiento modificando seis precios unitarios ofertados inicialmente, considerándose una modificación sustancial de la oferta, prohibida por la normativa y por la jurisprudencia y resolución de órganos de recursos contractuales, por contraria a los principios de no discriminación, igualdad y transparencia recogidos en los artículos 1 y 139 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, que aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Lizitatzaileek aurkeztutako proposamen

Las puntuaciones de las proposiciones

IFK-CIF Q2000541I
6634n VI 2009-11

ekonomikoek puntuazio hauek lortu zituzten:

económicas presentadas por los licitadores fueron las siguientes

**3. LOTEA/LOTE 3**

| **Lizitatzailea** / Licitador | **Proposamen ekonomikoaren puntuazioa** / Puntuación propuesta económica |
|---|---|
| ZUNZARREN | 50,00 |
| LOYOLA S.XXI | 44,88 |

Ebaluazio Batzordeak egindako balorazioaren arabera, enpresek puntu hauek lortu zituzten, beheranzko ordenan sailkatuta:

De la valoración efectuada por el Comité de Evaluación resultó la siguiente puntuación total, clasificada en orden decreciente:

**3. LOTEA/LOTE 3**

| **Lizitatzailea** / Licitador | **Proposamen teknikoa** / Propuesta técnica | **Proposamen ekonomikoa** / Propuesta económica | **Guztizko puntuazioa** / Puntuación total |
|---|---|---|---|
| **ZUNZARREN** | **15,98** | **50,00** | **65,98** |
| LOYOLA S.XXI | 16,93 | 44,88 | 61,81 |

IFK-CIF Q2000541I
6634n VI 2009-11

Hori guztia ikusirik, 2016ko otsailaren 22an, Ebaluazio Batzordeak Organo honi 3. Lotea esleitzeko proposamena egin zion, lote honentzako eskaintza ekonomiko abantailatsuena adieraziz eta *EVENTOS ZUNZARREN, S.L.*ri, 10 laneguneko epea emanez -errekerimendua jasotzen zuen egunaren biharamunetik kontatzen hasita-, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orriaren 17. Klausulan eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

A la vista de todo ello, con fecha 22 de febrero de 2016, el Comité de Evaluación elevó a este Órgano propuesta de adjudicación del Lotes 3, identificando la oferta económicamente más ventajosa para dicho lote, y requiriendo a *EVENTOS ZUNZARREN, S.L.*, para que aportara, en el plazo de 10 días hábiles contados desde el siguiente a aquél en que recibiera dicho requerimiento, la documentación exigida en la Cláusula 17 del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas

Dokumentazioa aurkezteko epea amaituta, IMPORCARAVAN, SLk ez du eskatu zaiona bete. Honen inguruan, Klausula Ekonomikoen eta Administratiboen Orriko 17. Klausulak honakoa dio: *"Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, enpresa lizitatzaileak/ek bere(n) eskaintza atzera bota du(t)ela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio berdina eskatuko zaio/e hurrengo lizitatzaileari/ei, sorta bakoitzeko eskaintzen sailkapenaren arabera".* Orrian jasotako aurreikuspen horren jatorria SPKLTBaren 151.2. artikuluaren azken paragrafoan aurkituko dugu.

Transcurrido el plazo de presentación de documentación, IMPORCARAVAN, S.L. no ha satisfecho dicho requerimiento. La Cláusula 17 del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas establece a este respecto que *"de no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la/s empresa/s licitadora/s ha/n retirado su/s oferta/s, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación la/s empresa/s licitadora/s siguiente/s, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas en cada lote".* Dicha previsión contenida en el Pliego tiene su origen en el artículo 151.2, último párrafo, del TRLCSP.

Donostia Kultura
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 150 • faxa 943 481 189 • donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.com

Hortaz, Klausula Ekonomikoen eta Administratiboen Orriko 17. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko eskatu zaio LOYOLA S.XXI enpresari.

LOYOLA S.XXI enpresak eskatutakoa ondo bete duela ikusita

**EBAZTEN DUT**

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAk eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. eta SAN TELMO MUSEOA, S.A. sozietateek antolatutako jaialdiak, ikuskizunak, kultura ekitaldiak, kirol ekitaldiak eta abar egiteko agertoki, hesi, mahai, aulki, harmaila eta beste hainbat materialen hornidura, alokairu erregimenean, eta horiek ezartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko zerbitzuko kontratuaren 3. Lotea ***LOYOLA SIGLO XXI, S.L.*** enpresari esleitzea atxikitutako eskaintzan adierazitako prezio unitarioetan.

Por tanto, se ha procedido a requerir a LOYOLA S.XXI la documentación exigida en la Cláusula 17 del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas.

Visto que el requerimiento efectuado a la empresa LOYOLA S.XXI ha sido debidamente cumplimentado,

**RESUELVO**

Adjudicar a la empresa ***LOYOLA SIGLO XXI, S.L.*** el Lote 3 del contrato del suministro, en régimen de alquiler, así como del servicio de colocación, montaje y desmontaje de escenarios, vallas, mesas, sillas, graderíos y material diverso, para la celebración de festejos, espectáculos, actos culturales, deportivos, etc. organizados por la ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL DONOSTIA KULTURA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. y SAN TELMO MUSEOA, S.A., por los precios unitarios que se detallan en la oferta adjunta.

Donostian, 2016ko apirilaren 25ean / En San Sebastián, a 25 de abril de 2016

Miren Azkarate Villar

Kontratazio organoa / Órgano de Contratación

IFK-CIF Q2000541I
6634n VI 2009-11

Donostia Kultura
Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 150 • faxa 943 481 189 • donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.com

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián